

MUNIBE (Antropologia - Arkeologia)	42	399-404	SAN SEBASTIAN	1990	ISSN 0027 - 3414
------------------------------------	----	---------	---------------	------	------------------

Euskaldunen eta Gainerakoen Itsaslurrerriak eta Hirierriak. XIX. Mendetik XX. Menderarte. Interpretapenerako Giltzarriak

The Basque and Foreign Peasant, Fish and Urban Communities.
From XIXth Century at XXth Century. For Its Interpretation

OINARRIZKO HITZAK: Kultura, taldezko banakoa.

KEY WORDS: Culture, social actor.

Joxemartin APALATEGI BEGIRISTAIN*

Joxemiel Barandiaran:
ataundarra, euskalduna
apeiza
antropologoa
zure 100 urtebetetzean
zorionak urteaskotan
eta euskal kulturazko nortasuna
berreskuratzearen
«samartintxiki» garaikidea
izan zaitugulako
eskerrikasko!

RESUMEN

Especialmente resalto:

1. Que la determinación de la identidad de una cultura es la primera condición epistemológica para la investigación individuo-social.
2. Que la comprensión del actor social es la vía más verdadera para la investigación individuo-social.

LABURPENA

Bereziki zera azpimarkatuko dut:

1. Banako eta taldeko ikerkuntzaren epistemologiazko lehen baldintza kultura baten nortasunaren mugaketa dela.
2. Banako eta taldeko ikerkuntzaren biderik egiazkoena taldezko banakoaren ulerpena dela.

SUMMARY

After this article, I quote:

1. The determination of identity of one culture is the first epistemological condition for the personal and social research.
2. The social actor's learning is the more truth way for the personal and social research (REDFIELD Robert, 1967: 79-80).

SARRERAN

Artikuluak JESUS ALTUNA prehistoriagileak eskatu zidan. Aitortu behar dut oso zaila gertatzen zaidala aipatu artikulu gaia aztertzea. Halere, bere azterketarako prest nago.

Historiagileen idazlanak aztertzeak premia aspalditik nireganatu nuen. Oraingoan, premia handiago egin zait. Horrekin batera, interdisziplinarietatearena ere.

Artikuluak burutzeko egin dudana ahaleginak asko poztutzen nau. Oraindik egitekoak, aldiz, asko estutzen nau. Ohi bezala, *eginala* berriro ikasiko dut ho-

* Euskal Herriko Unibertsitatea.
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Donostia.

betoago ikertzen. Horregatik bakarrik ere, artikulua kanporatzeak pena balio dit.

Artikuluaren izenburua oso zabala da. Noski, artikuluan zabaltasuna bere osotasunean ez dut lan-tzen. Baina, zabaltasun horrek bultzatuta dago artikulua burutua.

I. ZATIA: BESTEEI ENTZUN

Zenbait egile nagusiengana joko dut heurek euskaldun itsaslurreritarrak zein hiritarra nolako kontzeptuzko ikuspegiz azaltzen diguten jakiteko. XIX. mendeko amaieratik gaurrarteko denborakoaz bereziki arduratzen naiz egile hauengana hurbiltzerakoan. Izan ere, etnologian dabilen batentzat, esatebatetarako ni neu bezala, denboraren hasera eta amaiera bizirik dauden berriemailen denbora berarenak dira.

Oraingoz bi historiagile hautatu ditut. Bien artean, ordea, ezberdintasunik bada. Hori, ordea, nire ikerketaren metodologiako printzipiotzat jotzen dut.

MANEX GOIENETXE

Metodologiako printzipiok

Historiagile iparreuskaldunak 1987an *Lapurdi historian* liburua argitaratu zuen.

MANEXEK diosku «ororen eskumeneko izan daiteke»-la bere liburua (GOIENETXE MANEX, 1987: 5). Gaineratzen ere digu: «Lapurdi baino urrunago ere behatzen dugulako», «Dena den Baionatik Bilbora denek irakurteko moduan edo moldean idatzi dut» (Ibid., 5).

GOIENETXEK, beraz, kulturako nortasun euskaldunetik bere historiagintza burutuko digu, batipat haren osotzaile bitatik: hizkuntzarenetik eta lurralde-tasunarenetik, hain zuzen.

Hiria, lurreria eta itsaerria

MANEX GOIENETXEK hiru alditan banatzen du XIX. mendetik XX. erarteko denbora:

«A) EGONKORTASUNAREN IRAUPENA» (Ibid., 113)

Klaseei dagokionez, Frantziako Iraultza eta 1850 bitartean euskaldun «burgesiak» eta «merkatariek» izan zirela aurrerakada beren ongi izate pertsonala eta sozialean ezagutu zuten bakarrak populuan esaten digu MANEXEK.

Kulturari dagokionez, halere, «Egia esan, XIX. mendearen lehen erdian aldaketa sakonik edo bereizgarririk ez zen gertatu Lapurdin, ez eta Iparralde osoan ere» (Ibid., 114).

Banakoei dagokionez, azkenik, «F. CABARRUS (1752-1810)», «1808.ean Napoleonen» ministroa zena, eta «K. SOUBLETTE (1789-1870)», «1843-1847.ean

Lendakari» Venezuelakoa zena, aipatzen dizkigu, zein-ekin lapurtar mekatarigo klasearen haunditasuna azpimarkatzeko.

«B) 1850 -1914: ALDAKETAK ETA BERRIKUNTZA» (Ibid., 115)

Komunikabidei eta ondopasatzeari dagokionez, «Hirigintzaren hedapena trenbideari eta turismoari esker» (Ibid., 115) esaldian gordetzen du GOIENETXEK aldi honetako banakoaren eta sozialaren aurrerakadaren zati bat. Hain zuzen, trenak «1854.ean Baionara» eta «1864.ean Hendaiaraino.» heldu zen (Ibid., 115). Napoleon III.ak eta bere emazte Eujeniak, «Montijo euskal familiakoa», «Udako egoitza-leku bat hautatu zuten Miarritzen». (Ibid., 115).

Jendetzari dagokionez, hirian eta itsarrerrian haunditu eta arrotzez areagotu omen zen:

«1876»—«1911» Baiona	«27426» biztanlegotik «27886»-ra
«1876»—«1911» Miarritze	« 5507» biztanlegotik «18260»-ra
«1876»—«1911» Donibane L.	«4083» biztanlegotik « 5372»-ra

gutxitu eta arrotzez burutu omen zen lurrierrian, jendetza:

«1876»—«1911» Hazparne	« 9478» biztanlegotik «8132»-ra
«1876»—«1911» Uztaritz	«8943» biztanlegotik « 8480»-ra
«1876»—«1911» Biriatu	« 618» biztanlegotik « 555»-ra

(Ibid., 116-117)

Langilegoari dagokionez, sozialaren aurrerakadaren beste ezaugarri bat «Langileria industrialaren agerpena» (Ibid., 117) esaldian gordetzen du GOIENETXEK:

1.— Hazparneko zapatagintzari loturik «1906 inguruan» «3000 taraino» (Ibid., 118) langile kopurua iritxi omen zen.

2.— Batipat, «Bokaleko labe haundien inguruan» langileria osatu omen zen, «1881.ean» eraikia. «1800 langile»-kin aurkituz «1914.ean» (Ibid., 118).

Beraz, lurreria ahuldu eta ahal badu industriari eta hiriari atxikitzen zaien bitartean, hiria edo hirierria aldatuz dihoa komunikabidetara, turismora, industriara, merkataritzara areago sartuz. Honen ondorioz, itsaserriak, lurreriak ez bezala, aurrera egingo du sozialki, batipat bere arrantza teknikaz gehitzeko (Ibid., 121).

Euskal pentasariak aurrerakadan ordeztu atzerakadan omen zebiltzan, «Adema-Zaldubi Senpetarra» eta «Elisamburu Saratarra» lekuko (Ibid., 119-121).

«C) 1914-1964: BERRIKUNTZAREN NAHIGABEKERIA» (Ibid., 121)

Aldaketa haundiak egiten dira:

- 1.— 1914.ekoan «6.000» euskal soldadu hil,
- 2.— 1929.eko Krisia ondoren Miarrizten «70.000» turistatik «50.000» turistatara jetxi,
- 3.— Lurjabegoa lurrerritarrengandik paristarren-gana 1970.ekoan «P. Laborden-k agertu arabera» % 300"-an aldatu,
- 4.— Itsarreritarrak geroz eta itsarogatu «(Senegal, Dakar, Ginea)» eta goiteknifikatu, beharrez (««Ile des Faisans»» atununtzia lekuko).

Bukatzeko, MANEX GOIENETXEK «ARGIBIDEAK: Oraingo aroa: XIX-XX» (Ibidi., 125-149) izenburupean, besteak beste, erakusten digu lapurtar pentsalari banako eta taldeen jarrera, bitan banatuak:

- 1.— Zeinek «euskal nazio eskubideak» (Ibidi., 127) A. Xahoren antzera defendatu omen dituztenen taldea. Hala nola: Martin Bidart Senperetarra, A. Xaho, Euskalzaleen Biltzarra, Aita Iratzeder, P. Lafitte, M. Labigerri, Marc Legasse, E. Goienetxe, P. Xarriton, Enbata aldizkaria, Aberri Eguna (lehena 1963), eta abar.

- 2.— Zeinek ezeuskaldun antzera jokatu omen dutenen taldea: «La Gazette de Biarritz» (Ibidi. 130) eta Franco eta Hitler Hendaian elkartu zirenekoa.

Interpretapenerako giltzarriak

Honako hauetara bilduko ditut:

1.— Positiboak

- 1.— Kultura da MANEX GOIENETXEK aukeratzen duen banakotaldezko errealitatearen unitatea.

- 2.— Lantalde edo klase desberdinak eta pertsonak edo leduak hartzen ditu kulturaren egile zuzenekatzen.

2.— Negatiboak

- 1.— Euskal historiagileak berak euskal kultura banakotaldezko errealitatearen unitatetzat ematen duen moduan frantzes kultura ematen dutenena gehiago ez azpimarkatzea. Azken finean, nik sosengatzen baitut kulturen nortasunaren eta arteko harremanen egoeratik gainerako banako taldeko harremanak eraertzen direla.

- 3.— XIX. gibeletik XX. gibeleraino Lapurdiren, eta nolabait Iparreuskalerrria beraren, egoera sozialaren desoreka ekonomikoki, demografikoki eta kulturazko nortasunekoki agertzen digu, ondorioa euskal kulturaren aurrerakadarako oroar negatibotzat emanaz. Aldiz, bere baitatik begiratuta, hau da, M. GOIENETXE bera euskaldun pentsalari historiagile den lekutik, itxaropenezko positibotzat etorkizuna jotzen da.

- 2.— MANEX GOIENETXEK ez digu behar beste aztertzen zergatik euskaldungoa lurrerrian kokatzea behartua den eta hor ere geroz eta gehiago frantsegoaren agintzapean agertzea. Bereziki, zergatik diruduna edo kapitalista zenbat eta dirutsuago hainbat eta ezeuskaldunago? Hots, zergatik bat kultura nortasun euskaldunetik kultura nortasun frantzesera igarotzen da edo hurbilagotzen da, iadanik igaroa ez bazegoen?

MANUEL TUÑÓN DE LARA

TUÑÓN DE LARA Euskal Herriko Unibertsitateko (Leioa campusen) irakasle izan da bere jubilazio aurreko urte gutxitan. Bere pentsamenduak arrakasta dauka euskal kulturaren azterketarakoan. Nik, oraingoan, bere artikulua hau bakarrik kontutan hartuko diot: «Progreso técnico y conciencia social, 1898-1936», 17-70, in *España, 1898 - 1936: estructuras y cambios*.

Metodologiako printzipioak

TUÑÓN DE LARA zuzentzen edo editatzen duen aipatu liburuan bere zuzendaritzapean 1983an Madrilgo «Universidad Complutense»-an antolatutako «I Coloquio sobre la España Contemporánea»-n antolatutako «comunicaciones»-ak (TUÑÓN DE LARA MANUEL, 1984: 7) datoz. MANUELEK bere «Presentación»-ean Espainiako Estatuaren oraingo monarkiazko demokraziaren ondorioz Espainiaren historia Espainia bertatik aztertu ahal izateak eraginda, Pabeko Unibertsitate aldiko errefuxiatuzko ahaltasuna ahaztugabe orratio, hauxe aitortzen die elkarriketakideei:

«Esto no es lo mismo de Pau», ha dicho nostálgico algún colega. ¡Claro que no! Afortunadamente. Los historiadores sabemos demasiado que, a pesar de las *longues durées*, la historia es cambio en el tiempo, incluso es una nueva aprehensión del tiempo en su pluralidad articulada.

TUÑÓN DE LARA Manuel, 1984: 10

Baina «cambio en el tiempo» delakoa bere artikulurako TUÑÓN DE LARA zein metodologiako printzipiotatik aztertu du? Egileak, artikulua gibelean, interdisziplinarietara proposatu «esta alternativa»-ren (Ibidi., 70) berberatik:

1.— Denbora

Ez du behar beste argitzen berak aztertu «época»-rako aurkezten dituen «cuatro grandes subperiodos: 1898 - 1902, 1903 - 1914, 1915 - 1923 y 1924 - 1936» (Ibidi., 18) hauek zein denboratik banatzen dituen. Baina errez dirudi zaidanez, Espainiako eta Europako berri garaikidearen jabe naizelako, politikazko historia kriteriotik banatu ditu egileak.

2.— *Teknika aurrerapena*

«historia de la técnica»-a «historia total o global»-erako premiazko eragileen artean dagoela aitortzen digu MANUELEK (Ibid., 17-19).

Aldi bakoitzerako teknika historia honako bere agerpideetatik iritsiarazten digu egileak, artikuluko «1. LA CONYUNTURA, 1898 -1902» sailakotik gidadaten naizelarik:

- 1.— «sector agrario»
- 2.— «producción minera y energética»
- 3.— «siderúrgicas»
- 4.— «industria textil»
- 5.— «productos químicos»
- 6.— «cemento»
- 7.— «industrias alimentarias y conservas» eta geraoagoko alditako sailetakotik gidatzen naiz zere-
renda gehitzeko:
- 8.— «construcción naval»
- 9.— «transportes»
- 10.— «vida cotidiana»

3.— *Kulturazko nortasuna*

Espainia eta denbora bereko bere kanpoarremantako estatu-nazio kideak dira TUÑON DE LARAK azterketarako hautatutako kulturazko nortasuna.

4.— *Taldek*

Elkarrizketaldirako MANUEL zuzendariak hiru galderak (Ibid., 17 - 18) ematerakoan, hirugarrenak honelaxe diosku: «¿Qué repercusiones pudieron acarrear esos cambios y esas permanencias en la conciencia de los diferentes agentes o sectores que participan en las relaciones de producción?» (Ibid., 17-18). Bere erantzunean honako egiletara mugatuta da:

- 1.— Gobernua (Ibid., 66)
- 2.— Kapitalismoa, nazionala eta arrotza edo multinazionala (Ibid., 66)
- 3.— Sindikatuak (Ibid., 57)
- 4.— Eliza katolikoa (Ibid., 41)

5.— *Jabetasun soziala*

TUÑON DE LARA historiagileak printzipio hau bere artikulua muinean ezartzen du. Artikuluaren izenburuan ederki bilduz: «Progreso técnico y conciencia social, 1898 - 1936».

Deskribapena

Artikulu deskribapenez bete bete dago. Bereizki teknika, talde soziala eta jabetasun soziala gaiak deskribatzen ditu MANUELEK.

Pentsamendua

MANUEL TUÑON DE LARAK historia orokorraren barne-
netik jokatzeko du, multiegiak bertan antzemanek. Hauetakoa bik bere artikulua gunea sortzen dute: teknika aurrerapenak eta jabetasun sozialak.

Espainiaren historia soziala garaikidearen ulerpe-
nerako hartu dituen metodologiako printzipioak egokiak bezala mugakorrak dira. Industria eta hiri lan-
gileari alde batetik eta bestetik teknikari lehentasun erabatekoa ematen bait die espainiar historia sozia-
la garaikidea eraikitzerakoan, halako puztutasunez-
ko balorapenez ikusiz.

Ondorioz, sindikatuen eragina ere puzten du. Lu-
rerrritarra edo baserritarrengan posibotasun zerbait
besterik ez du ikusten.

Kapitalegoa berezko indar batez bultzatua bale-
go bezala dago aztertua. Gobernua, aldiz, bigarren
mailako eragile bezala.

Talde batzuek egile haundizat ematen dituen bi-
tarteak, inongo taldetan edo taldez kanpotikako ba-
nakorik ez du gogoan.

Azkenik, historia sozialaren ikuspegi kulturaz-
ko nortasuna suposatutzat besterik ez du ematen.
Espainian Espainia kultura nortasuna bakarrik supo-
satzen du, ahalegin bat ere egiten ez duelarik hori
hala dela zihurtatzen.

Bere artikulua luze, argi eta biziaren amaieran «Mi
hipótesis»-a ematen digu honako puntu hauetan
banatuta:

1.— XX. mendearen lehen lau hamarkadetan «in-
novaciones técnicas»-ak (Ibid., 65) gehiengoareng-
a iristen direla.

2.— «progreso tecnológico»-agatik «la concien-
cia social ni» «las pautas de valor de los trabajado-
res en general» (Ibid., 69) ez direla gutiatsi.

3.— Batipat azkenaldian, «una alta tecnología»
eta «mejores salarios reales» bikoteak langileen egu-
neroko bizimoduko harremani buruzko «reflexión»-
ea (Ibid., 69) txikitu dela.

Gero TUÑON DE LARAK puntu hauetan kontraesa-
na azaltzen du. Berak artikulua azken orrialdean
hori beste baten ahotan aitortzen du, P. VILAR histo-
riagilearenean hain zuzen. VILAR-ek *Sistema-ren*
53.ean emandako hipotesiak honela omen dio:
«¿progreso técnico = progreso del reformismo?».

MANUELEK orain arte erabili duen historia sozia-
ren kontzeptuak porrot egin diola aitortu eta bide be-

ri bat proposatzen du bere artikulua amaitzerakoan. Hots, interdisziplinariak behingoz elkartzea!

Difícil es la respuesta; pero tal vez habría que buscarla en el *cambio del concepto de «conciencia social»* y del camino para llegar a ella; este camino pasa por la comprensión de las relaciones de producción sin integrarse en un sistema cuya historia ya conocemos; pasa por gozar de los bienes creados por la ciencia y la técnica sin alienarse por ello; pasa por saber que, desde una multiplicidad de centros emisores la clase dominante repite mensajes de justificación, legitimación y alienación, sin por ello responder a su gran problema; porque hoy como ayer no se invierte para el progreso y el trabajo si no hay garantías de mantener un orden en el cual la inversión y el beneficio privados son el motor de la actividad tecnológica; y, naturalmente, como las necesidades están cada vez más «socializadas», la contradicción se impone. ¿Que no se encontraron otras soluciones? Esforcémonos por buscarlas, por hallar esa alternativa; todos, economistas, historiadores, juristas, hombres de letras y de ciencias. ¡Tal vez sea lo que de verdad valga la pena en cada una de nuestras profesiones! (Neuk azpimarkatuak).

TUÑÓN DE LARA Manuel, 1984: 69-70

Beraz, metodologiako printzipiotan badago oraindik zer eginik! Nik, batipat, bi hauek kontutan hartzea proposatzen dut historia soziala edo kulturazko historia egitera goazanean: 1/ Taldeak hainbeste banakoak dira lehen mailako eragile sozialak; 2/ Edozein garaitan eta tokitan edonor eragile kultura batetatik ari da.

2. ZATIA: NEUK ESAN

Orain nire aurreko idazlanetatik eta idazlan honen 1. zatitik abiatuz, aztertzen natorren gaiari buruzko nire pentsamendua agertuko dut.

JOXEMARTIN APALATEGI BEGIRISTAIN

4 metodologiako printzipio haik

Nire *Introducción a la historia oral. Kontuzaharrak (Cuentos viejos)* (1987) delakoan ahalegin handiak egin nituen bestea-rena ulertzeko. Esatebaterako, Ataungo Sangregorio eta Hergone auzoetako mende honen lehen hiruren eta gehixeagoko denborako kontuzaharrak zer ziren?

Honen inguruan zehazkiago ihardungo naiz ge-roago beste idazlan batetan: «Modelo para la codificación de la producción oral: un mito atandarra» (1986). Hau, aurreko idazlana baino lehenago argitaratu arren, harren aldean askoz beranduago idatzi

nuen. Bertan ematen nituen pertsonen eta kulturen ahozko, zein idatzizko zein plastikazko, produktuak aztertzeko ikerlariak, antropologok zein dena delakok, derrigorrez hartu beharreko metodologiako printzipiook:

Los cuatro criterios de análisis de la producción oral son los siguientes:

•«Ahozko produkzitailea-k» o productora/es oral-es.

•«Ahozko produktoa» o producto oral.

•«Kontakizunezko edo produkzipenezko giroa» o ambiente narrativo o productivo.

•«Kulturazko giroa» o ambiente cultural.

Hoy pienso, además, que estos cuatro criterios sirven igualmente para analizar el resto de las producciones de las personas y culturas, cuales son la de la escritura y la de la cultura material o plástica. Ello, porque siempre son las mismas personas y culturas las autoras de producción. El criterio de autoría sería, por consiguiente, el más importante de entre los cuatro.

APALATEGI BEGIRISTAIN Jm, 1986: 134

Metodologia hori sincroniatik pentsatua nuen. Gaur, ordea, honen barnean beti diacronia dagoelakoaren jabetusunaz nago, beste printzipio batzu gehitu behar diodalarik. Segidan horietako bat, besterik ez, ematen ahaleginduko naiz.

Kulturen ikusmoldearen banakozko eta taldezko eraberriketa

TIMOTHY MITCHELL-ek, New York University-koa Cambridge University-ko *Comparative studies in society and history* aldizkariko 1989ko apirilakoan («volumen 31 number 2») «The World as Exhibition» (217-236) artikuluan defenditzen duena agertuko dut diacroniatik eraikitako metodologiako printzipioetako bat bezala.

1889ko Pariseko Munduko Erakusketan Egiptori buruzkoa ikusi omen zuten Sueziaiko «Eight International Congress of Orientalists»-erako bidean zihoaztela egiptoar delegazioko lau kideek.

Hauen harridura paristar erakustokiko Egiptokoaren aurrean!: ««It was intended», one of the Egyptians wrote, «to resemble the old aspect of Cairo.» So carefully was this done, he noted, that «even the paint on the buildings was made dirty.» 1 («1. MUHAMMAD AMIN FIKRI, *Irshad al alibba'ila mahasin Urubba*. (Cairo: al-Muqtataf, 1892), 128»).

MITCHELL-ek, urruna 19. mende bukaeran europar bidaiari batzuk Egiptora egindako jonaetorriaren gainean idatzitako harridurak aztertuz, amieran tesi hau sostengatzen du:

The case of Orientalisme shows us, moreover, how this supposed distinction between the interior representation and external reality corresponds to another apparent division of the world, into the West and its Oriental exterior. Orientalisme, it follows, is not just a nineteenth-century instance of some general historical problem of how one culture portrays another, non just an aspect of colonial domination, but part of a method of order and truth essential to the peculiar nature of the modern world.

MITCHELL Timothy, 1989: 236

MITCHELL-ek dioskunean mendebalder mundu garaikideari, bere denboraren une batetan hain zuzen, bere izateetik darion ordenamendu eta oinarritzko egia-aren jokabidetik datorkiola, esate batetarako, «The case of Orientalisme»-a, bat nator. Ez, ordea, hori «some general historical problem of how one culture portrays another» eta «non just an aspect of colonial domonation» delakoekin zerikusirik gabekoa dioskunean. Nire irudiko, hain zuzen, MITCHELL-en azterketak erakusten diguna zehazkiago zera da: denbora pasatuala banakoak bere kulturakideekiko eta kanpokokulturakideekiko eta kultura batek berarekiko nola besteekeko daukaten ikusmoldea eraberritu egiten dela, hortik kultura bereko kideen artean nahiz batekoen eta bestekoen artean adostasunak bezala ezadostasunak sortzen direlarik.

Hemen BRONISLAW MALINOWSKI *Argonauts of the Western Pacific* (1922) liburuaren azken azkenaldian, konkretuki «III. (CRITICA DE CIERTAS HIPOTESIS ANTROPOLOGICAS)» artikuluan, dioskuna-ekin gabiltza, baldin poloniarraren kulturari buruzko pentsamenduari egileak berak bezala bakarrik egonkortasuna atxekitu ordez aldakortasuna ere atxekitzen badiogu:

Lo que verdaderamente me importa al estudiar los indígenas es su visión de las cosas, su *Weltanschauung*, el aliento de vida y realidad que respiran y por el que viven. Cada cultura humana da a sus miembros una visión concreta del mundo, un determinado sabor de la vida. Pasando revista a la histo-

ria de la Humanidad y a los diversos lugares de la Tierra, lo que siempre me ha cautivado más e inspirado el auténtico deseo de penetrar en otras culturas y entender otros tipos de vida, es la posibilidad de ver el mundo y la existencia desde los distintos ángulos peculiares a cada cultura.

MALINOWSKI Bronislaw (1922) 1975: 504

BIBLIOGRAFIA

AMIN FIKRI, Muhammad

1982 *Irshad alalibba'ila mahasin Uruba*. Cairo: al-Muqtataf.

APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin

1986 «Modelo para la codificación de la producción oral: un mito autandarra» 129-167. *Oteiza euskal esteta eta mitologitzaila. Oteiza esteta y mitologizador vasco*. San Sebastián: Aurrezki Kutxa Munizipala - Caja de Ahorros Municipal.

1987 *Introducción a la historia oral. Kontzaharrak (Cuentos viejos)*. Barcelona: Anthropos Editorial del Hombre.

GOIENETXE, Manex

1987 *Lapurdi historian*. Donostia eta Baiona: Elkar.

MALINOWSKI, Bronislaw

1922 *Argonauts of Western Pacific*. London: Routledge and Kegan Paul.

1975 2ª ed. *Los argonautas del pacífico occidental*. Barcelona: Ediciones Península.

MITCHELL, Timothy

1989. April «The World as Eshibition» 217-236, *Comparative studies in society and history* volume 31 number 2. New York: Cambridge University Press.

REDFIELD, Robert

1967 *The little communnity. Peasant society and culture*. Chicago and London: Phoenix Books The University of Chicago Press.

TUÑÓN DE LARA, Manuel (Ed.)

1984 «Progreso técnico y conciencia social, 1898 - 1936», 17 - 70, *España, 1898 - 1936: Estructuras y cambio*. Madrid: Universidad Complutense.

VILAR, Pierre

Sistema nº 53.